

Euskal gabon kantak



Gizapedia

gizapedia.hirusta.io

Partiturak ikusi eta doinuak entzuteko, jo orrialde honetara:
<http://www.euskarabidea.es/euskara/gabon-kantak/zerrenda>

Ai! Hau gabaren zoragarria!

Ai! Hau gabaren zoragarria!
 Jesus jaio da Belenen
 Etxe honetan sartu ote dan
 bila gabiltza beronen

Erdiok gara olagizonak
 beste erdiok arotzak
 limosnatxo bat egitekotzat
 bigundu bediz bihotzak

Ama gureak bere behiari
 kaikua esne bildurik, epel-epelik, giro-girorik,
 hartu baleio gustorik

Hor goitik eta beherainokoak
 artzain zaharraren saltoak,
 bildots handia lepoan duela
 altxa ezinik orpoak

Belaunbikoka joan ginaden
 Nazaretikan Belena,
 geuk adoratu behar dugula
 Jesus Maisua lehenena

Alaken

Alaken, alaken,
 ala pikula tun paire,
 errespunde la pikula tunpa
 Jesus Maria Jainkoa zen. (bis)

Adizkideok!
 Ikusi duzue zelai horietan artzaia,
 artzai txiki,
 artzai handi,
 artzai mutur leuna.

Alaken, alaken...

Lo leri lelo,
 goxo dek goxo,
 neguan etxe txokoa. (bis)

Gaur jaio da, gaur,
 Jesus Haurtxoa.

Lo leri lelo,
 hiru errege
 izar baten arrastoan.
 Lo leri lelo,
 tranka, trankatran,
 hirurak zaldiz badoaz.

Din dan don

Din dan don, din dan don!
 Eguberri on!
 Zorion, zorion!
 gabonak, din-dan, don!
 Din dan don, din dan don!
 Eguberrion!
 Zorion, zorion, Gabonak Gabon!

Izar bat hasi da dizdizka zeruan
 berri onak zabaltzen ari zaigu munduan.
 Jaio da, jaio da, Jaunaren semea,
 askatxo batean dago, lastoen gainean.

Din dan don...

Aingeruak kanta, artzain onak dantzan,
 Jainkoaren jaiotzan Pakea eta Haintza!
 Astoak, aja-ja! Idiak, muu-mu!
 estalpe zaharrea kantuan ari zaizkigu.

Din dan don...

Antxon eta Peru, artzain buruzuri,
 izarrari jarraika biak datoz arinka.
 Menditik barrena, haurtxoarengana,
 artzain bakoitzak darama arkumetxo bana.

Din dan don...

Dringilin dron

Dringilin dron, gaur Gabon,
 dringilin dron, gaur Gabon,
 sabela betea daukat eta
 besteak hor konpon. (bis)

Mazkelu bete aza egosi,
 koloretsu ta gorriak
 bereala irunsi neutzazan
 azkenengoko orriak.

Dringilin dron, gaur Gabon,
 dringilin dron, gaur Gabon,
 sabela betea daukat eta
 besteak hor konpon.

Hiru puntako askal batekin,
 sakatrapua bailitzan
 ezti-lapiko handisko bati
 barrua uts-uts ein neutsan

Elurra teilatuan

Elurra teilatuan
zakua lepoan
ibili beharko dugu
aurtengo neguan.

Riau, riau, riau
rakataplau...

Hau duk umorea
utzi alde batera
euskaldun jendea.

Riau, riau, riau
rakataplau...

Hau duk umorea
utzi alde batera
euskaldun jendea.

Hator, hator

Hator, hator, mutil etxera
gaztainak ximelak jatera
gabon gaba ospatuzeko
aitaren ta amaren ondoan.
Ikusiko duk aita barrezka
ama ere poz atseginez.

Eragiok mutil aurreko dambolin horri
gaztainak erre artean,
gaztainak erre artean,
txipli, txapla, pun.
Gabon gaba pozik igaro daigun.

Kanta alleluia

Kanta kantari daude zeruan
kanta kantari aingeruak. (bis)
Kanta alleluia,
gaur alleluia,
beti alleluia,
Kanta alleluia! (bis)
Epel epel sukalde giroan
aitaren eta amaren ondoan. (bis)
Kanta alleluia,
gaur alleluia,
beti alleluia,
Kanta alleluia! (bis)
Gaur jaio zaigu Jesus Haurtxoa.
Goratu dezagun Jainkoa. (bis)
Kanta alleluia,
gaur alleluia,
beti alleluia,
Kanta alleluia! (bis)

Olentzero joan zaigu

Olentzero joan zaigu
mendira lanera
intentzioarekin
ikatz egitera.
Aditu duanian
Jesus jaio dela (edo negua heldu dala)
lasterka etorri da
berri ematera.
Horra, horra,
gure Olentzero,
pipa hortzetan duela
eserita dago
kapoiak erre baitu
arrautzatxoekin
bihar merendatzeko
botila ardoakin.
Olentzero buruhandia
Entendimentuz jantzia
Bart arratsian edan omen du
Hamar arroko zahagia
Hau urde tripa haundia!
Tralalala tralalalala (bis)